

OROBIO-USATEGI 1

Hemen bertan dago Getxoko kalerik laburrena; Orobio kalea. Orobio edo ahoz "Oromiño" Amorebieta-Etxanoko auzoa da; Durango eta Iurretatik hurbil.

Gaur plaza den honetan, etxea zegoen, "**Limakoren** etxea" toponimoa ezizen bat da; Liman ibili zen baten etxea adierazten zuen. Etxe hori bota zutenean, espazioa aprobetxatu zuten kalea sortzeko.

Gero "**Caza bar**". Sortu zuen jabea ehiztari amorratua zen. Kuriositate moduan, esan behar da joskera "bar Caza" jartzea izan behar zela baina kakofonia bat geratzen da eta "Caza bar" jarri zuen.

"Caza bar" tabernaren atzean dagoen etxea, Algortako etxe tipiko bat da; **Kareaga** du izena eta Barakaldoko kapitain batek eraikia da 1804an eta bertako auzoa "Kareaga" izena jarri zion; ez da beraz abizen bat. Marinel horrek berak **Casino Algorteñoa** eraikitzeke lurrak opari egin zituen

OROBIO-USATEGI 2

Dokumentazio zaharrean badakigu **Saratistegi** agertzen dela eta beharbada **sahatsa** izeneko zuhaitzarekin lotura izango du. Sarats+tegi.

Toponimoa sortzeko forma nahi arraroa da. Toponimoak sortzeko mekanika bat egoten da eta kasu honetan ez du ematen oso arrunta denik; amaierako "-tegi" horrek edukia da lekua esan nahi du eta edo etxeak, **Sarastegi** edo antzekoren bat izan beharko luke; agian **Saratastegi**.

Ez da toponimo garbia baina logikarik gehien duen hipotesiak esaten du normalena Saratistegi Sarastitegi hitzetik etortzea dela eta hemendik **Satistegi**. Betiere **sahatsa** zuhaitzarekin lotua; fitonimo bat izango litzateke.

Badago beste teoria bat ere: zabortegeiaren sinonimoa izatea; XX. mende hasierako fraide batek **Saratistegi** deitzen dio " donde las basuras" izan ere "**satsa**" zaborra edo animalien hondakinak adierazteko erabiltzen da; kasu horretan saratistegia, gaztelaniazko "estercolero"ren sinonimoa izango litzateke. Dena den, hau ameskeria da; ezin da zaborrarekin lotu toponimoa; baliteke XX. mendean erabilera hori izana baina izena askoz zaharragoa da eta ez du horrek azaltzen.

Mundu guztiak **Satistegi** plaza bezala ezagutzen duen arren, izen hori ez da existitzen Getxoko kaletegian. Hori jartzea adostu zen baina ez dago onarpen ofizialik.

Basagoiti, lehen esan dugu **Tetuan** izan zela eta "**Calzada Mayor**" "**Camino Real**" ere deitu izan zaio dokumentazioan. Bertokoek, ostera, "**Kaltzada**" deitu zioten eta momentu batetik aurrera, Antonio Basagoitiren omenez "**Basagoiti etorbidea**" izatera pasatu zen.

OROBIO-USATEGI 3

Urkijo abizenetik etorriko dela pentsatzen da; XIX. mendearen erdialdean agertzen da segur aski Ereagara doan maldari aipamena egiteko; **Urkixobaso**; nolabait Urkixo abizeneko norbaiten basoa; agian agintariren bat.

Urkijo berez Urkixu izan behar zen euskaraz eta **-xu** hori erromatzeari zor zaio. Abizenaren jatorria Orozkoko dorretxe bat da; dorretxea botata dago baina abizena Aiara aldera zabaldua zegoen ordurako.

Ezizenek eta umoreak ere funtzionatu izan du toponimoak sortzekoa. Algortan ere "**malzapatariena**" izeneko etxea zegoen; inork ez lioke gaur egun bere etxeari horrela deituko. Urkixobasorekin ez dauka zerikusirik baina Lope Garcia Salazarrek "Bienandanzas e fortunas" erdiaroko liburuan "marques de Ozpin" deitzen dio Urkixo bati eta justifikatzen du "Y le llamaban ozpin que en vascuenze significa vinagre por su caracter"

OROBIO-USATEGI 4

Tellagorri pertsona izena da; zehazki Jose Olivares Larrondoren ezizena. José Olivares EAE-ANV alderdiaren sortzaileetako bat izan zen, kazetaria; "El Gobela" sortu zuen bere auzoa zen Bingen Amezagarekin; "Tierra Vasca" izeneko aldizkaria sortu zuen eta gerra ostean Parisera ihes egin behar izan zuen; baina naziak Frantzia okupatu zuenean, Frantzia ibili zen ezkutuan eta noraezean harik eta Alsina barkuan Buenos Airesera heldu zen arte; hortik aurrera Ameriketa osoan argitaratu ziren aldizkari ia guztietan kolaboratu zuen.

Plaza honetan zegoen **Tatoena** etxea; gaur egungo **Gatzelugatxe** etxean. **Ugartena**, jate etxe moduan dotore zaindutakoa eta gero **Karitate** kalearen 1 Aldai Patronatoa; esklabotzan dirua irabazitako pertsona batek bere pekatuak zurrizteko egindako etxea.

1980an jarri zitzaion **Tellagorri** izena plaza honi; aurretik "plaza del Tilo" deitzen zitzaion eta horregatik edo, plazan dagoen zuhaitz ederra makalondoa da.

OROBIO-USATEGI 5

Basagoiti, lehen esan dugu **Tetuan** izan zela eta "**Calzada mayor**" "**Camino Real**" ere deitu izan zaio dokumentazioan. Bertokoek, ostera, "**Kaltzada**" deitu zioten eta momentu batetik aurrera, Antonio Basagoitiren omenez "**Basagoiti etorbidea**" izatera pasatu zen..

OROBIO-USATEGI 6

Toponimoen kuriositaterik handiena, zelan mugitzen diren ikustea da. Etxe honek adibidez ematen du txaleta dela baina hau ere Algortako etxe tipiko horietakoa da; 1901ean Kubatik etorri zen dirudun batek egin zuen, Txalet itxura eman zion baina berez etxe tipikoa da eta **Iturrieta** deitzen da. Horren atzean zegoen beste bat, gaur egun telepizta dagoena, **Mantekeruena**. Jatorriz Mantekeruena, Gatzelu zaharrean zegoen baina 1901ean hona etorri zen; oso normala zen etxeen izenak "mugitzea" (Txangorriña etxea ere mugitu zen), jendea mugitzen zenean berarekin eramatea bere etxearen izena.

Portu Zaharrera doan bidea, **Aretxondo** deitzen da, Udalak bidea eraiki zuenean kale bihurtu zuen eta orduan eman zion bertako toponimoaren izena; hemengo baserri bat zen...Nazio Batuen esanetan, kale berriak izendatzeko toponimoak erabiltzea dela biderik zuzenena.

OROBIO-USATEGI 7

San Nikolas eliza **Muxika** baserriko landan eraiki zen. 1745ean, inguru guztia Muxika baserriarena zen. Denborarekin Muxika baserri bi egon ziren **Muxikaurrekoa** eta **Muxikaosteikoa**

Beranduago, XVIII-XIX. mendean, populazioaren gorakada handiak hainbat fenomeno ekarriko zituen:

- alde batetik espekulazio mobiliarioa; jatorrizko **Muxika** baserriaren lurretan baserri bi eraiki ziren: Muxikaurrekoa eta Muxikaosteikoa. **Aurrekoa** eta **osteikoa** adjektiboak erabiltzea ohikoagoa da **Algorta** eta **Getxon goikoa** eta **behekoa** baino, izan ere nahiko toki laua da eta ez dago aldaketa orografiko handirik.
- bestetik, baserriak handitu egiten ziren; ez dakigu hemen horrelakorik egon zen baina baserri asko zabaldu eta altuagoak egin ziren jende gehiago hartu ahal izateko.
- bestetik, etxe bakoitzean familia bat baino gehiago hartu ahal zuen; Muxika baserri hauen kasuan, bertan jaiotako azken pertsonaren arabera 4-5 familia bizi ziren; guztiak maizterrak eta bertan jaiotako azken pertsonak adibidez ez zekien zein zen baserriaren izena. Jabeak ordurako Madrilen zeuden.
- ez da **Muxika** baserriaren kasua baina, **-ena** (aurrekoa-osteikoa/ goikoa-behekoa ere erabiltzen da) atzikia orokortu zen Bizkaian etxeak izendatzeko; izena, abizena, ezizena edo pertsonaren ezaugarriren bat+**ena** (jabetza adierazteko).

Inguru honetan baserri funtzioa izango zuten etxeak eraikitzen zirenean, itsasoari atzea emanda eraikitzen ziren ekaitzak ekiditeko eta epelagoak izateko.

Plaza XIX. mendeko elizarekin batera garatu zen Muxika baserriko landan. Gaur egun liburutegia den eraikina, Udaletxe eta eskola bezala pentsatu zen eta 1929ra arte hemen egon zen Udaletxea.

OROBIO-USATEGI 8

Eliza hau XIX. mende hasieretako da eta **Portu Zaharreko** San Nikolas jatorrizko ermita txikitik dator. Portu Zaharreko ermita txiki geratu zen hemen bizi zen jende guztiari zerbitzua emateko eta ikusita populazio berria goiko aldera etorri zela bizi izatera eta Getxoko Andra Mariko parrokiara joateko zailtasunak zeudela (batez ere distantzia) hemen egin zuten San Nikolas eliza berria (izena mantenduta) eta asko borrokatuta lortu zuten parrokia izatea 1808an.

Parrokia izateak beste estatus bat esan nahi du; Parrokiaren inguru guztia komunitatearen erdigunean izatera pasatzen da; erdigune erlijiosoak dakar erdigune sozial eta ekonomikoa.

Horrek beste Getxo baten hasiera ekarri zuen; Getxo nekazari ezaugarriak zituen elizate izatetik elizate marinela izatera pasatu zen; hau da, biztanle-gune nagusia aldatu egin zen eta bizitza ekonomiko-kultural nagusia hemen bizi ziren marinelen

ingurura pasatu zen. Eliza berri hau goiko alde honetan egiteak eta parrokia izaera hartzeak irudikatzen du fenomeno hori.

Eta kuriozosa da izenarekin gertatu zena; **Algorta**, etxe bat izendatetik auzo txiki bat izendatzera pasatzen da aurretik erabiltzen zen **Alangori** tokia kenduz eta apurka jatorrizko Alango irentsiz era berean, lehen **Algorta** zenak izena galdu zuen eta **Portu Zaharra** izatera pasatu zen.

Plaza honetan neska eta mutilentzako eskolak egon ziren. Algortan, XIX. mendearen amaieretan eskola bi zeuden. Kuriozosa da ongileek hornitzen zituztela eskolak XIX. mendean; Juan Bautista Zabalak eskola hornitu zuen gaur egungo **Zabala** kalean dagoena eta Andres Cortinak, **Alangoko San Martin** ermitaren alboan (San Martin kalean, trinitarioen elizaren aurrean) neskentzako eskola hornitu zuen; aipagarria eta gaur egungo ikuspegitik bereziki txalogarria da neskentzako eskola zela, ze orduan, oso neska gutxi ikasten zuten idazten eta irakurtzen. Eta hori dela eta, erakunde publikoek hau ere Cortina saritu zuten...kale batekin.

Eta kale bat eskaini zioten beste pertsona bat **Antonio Basagoiti** izan zen; Basagoiti etorbide hau zehazki. Madrilgo gobernuaren asmoa XIX. mendearen erdialdean Bilboko portua handitzea zen eta horrek **Ereaga** inguru guztia deuseztatzea ekarriko zuen; Getxoko Udala eta Bizkaiko Foru Aldundia Madrilgo proiektuaren kontra agertu ziren eta Antonio Basagoitik Madrilen zituen kontaktuei esker, proiektu hori ez zen egin eta horregatik Getxoko Udalak Algortako kale nagusiari bere izena jarri zion.

Basagoiti familiak 1825ean taberna zeukan San Nikolas plazan; zehazki elizaren alboan dagoen hori (Basagoiti 68). Honek ere historia kuriozosa dauka; Basagoiti familiako andre batek oparitu zion etxea elizari baina baldintza batzuekin; hain zuzen ere ezin zuela opari moduan eman ez saldu eta ezta gainean eraiki ere; horrelakoren bat eginez gero, eraikina familiari bueltatu beharko zitzaion.

Basagoiti familia tabernariak izatetik bankariak izatera pasatu ziren XIX. mendean.

OROBIO-USATEGI 9

Etxe hau **Bidegain** da; 1924an eraikitako txaleta. XX. mendearen hasieretan hasita etxe eta txalet askori euskal izena jarri zitzaion; batzuetan izenak jartzeko euskal sistema zaharrari jarraituz kasu honetan bezala. Beste batzuetan fikziozko izenak erabiliz: "Gure ametsa" "Eguzkirantz" eta antzekoak; izen mota hau izenak jartzeko tradizioaren kontrakoa da.

Bestetik, esan behar, XX. mende hasieran etxeei euskal izenak jartzea ohikoa izan zela; nolabait prestigioa ematen zuen zerbait eta ez zeukan zerikusirik euskara jakitearekin edo euskaltzalea izatearekin; euskal izenak erabiltzen zituzten monarkiko eta tradizionalistetatik hasita abertzaleenataraino; batzuetan egokiago eta beste batzuetan asmakizunei bidea zabalduz.

Bere aurrean zegoen **Muxikaosteikoa** etxea; "el portal de Belen" ere deitzen zitzaion.

Inguru guzti honen izena, **Jardingana** da; ahoz "Yardingana" esan behar da, nahiz eta gaur egun mikrotoponimo hau kalea baino ez den.

Garaiena berriz(apur bat aurrerago geratzen da, ez gara hortik pasatuko), **Garai** herritik dator eta **-ena** atzizkiak osatutakoa. Toponimoekin gertatzen den beste fenomeno kuriozoso bat ematen da hemen. Denborarekin, **Garaiena**, **Gariñe** bihurtu

zen eta hurbilenekoek ere izen ezberdin bi direla pentsatuta bizi dira; ahozko eta idatzizko formen artean dagoen aldea dela konturatu barik. Gero hortik, eta gaztelaniaren eraginez, **Gariñes** ere deitzen zaio; Arrigunagari **Arrunes** ere deitzen zaion moduan. Horrela, batzuk pentsatzen dute **Arrigunaga** hondartzaren izena dela eta **Arrunes** goian zegoen baserriarena.

Arrigunaga bidean badago beste etxe tipikoa bat: "**Benturillena**" (Arrigunagako jaitsiera, 6) hau ere pertsonaren baten ezizenetik ateratakoa.

OROBIO-USATEGI 10

Diktaduraren ondoren sortu ziren kale berri askori mendi eta ibaien izenak jarri zitzaizkien; Andra Mari inguruan txorien izenak erabili izan ziren bezala; hori dago kasu honetan **Artibai** edo **Oka** Ibaien adibidea.

Bestetik, ezin aipatu barik utzi, hemendik hurbil **Maria Goiri kalea** dagoela. Maria Goiri beharbada ezagunagoa da bere ezkontzagatik baina aipamena merezi duen emakumea da. Algortan jaio zen, ez zeukan aitarik, umetan ez zen joan eskolara, tuberkulosia pasatua zuen eta honek artritisa utzi omen zion eta hala ere unibertsitatean sartu zen lehen emakumea izan zen 1892an, hezitzailea, feminista eta agian gimnasio batean izena eman zuen lehen emakumea ere. Egia da azpimarratzekoa dela amaren figura kasu honetan; jostuna zen eta bere garairako oso aurreratua.

Etxeandia Artzapezpikuak ere kalea dauka hemen. XVIII. mendeko misiolari getxoztarra izan zen eta artzapezpiku egon zen Filipinetan.

OROBIO-USATEGI 11

Hor behean **Arrigunaga** hondartza ikusi ahal da. Bitxia da baina gaur egun Getxon elementurik inportanteenak auzoak eta hondartzak dira baina toponimia historikoan hauek ez dute garrantzi handirik izan; batzuetan ez dute ezta izenik ere. **Ereaga** toponimoa "hondartza"ren (**Areaga**) sinonimoa da; **Arrigunaga**, goian zegoen baserriaren inguruko toki oso zabala zen, **Areatxu** hondartza barne eta harrien ugaritasunak definitzen zuen ez beste ezer; **Gorrondatx** hondartzari **Gorrondo** baserriak ematen dio izena; **Arrietara** horrela deitzen da harriak ateratzen zituztelako; **Aspiribil**, harkaitz biribilak zituelako...inguruko hondartzak dira, gizarte bizitzan garrantzia izan dutenak baina batzuk ez dira dokumentazioan agertzen XX. mendera arte eta gehienetan hildakoren bat agertu delako bertan.

Arrigunaga hondartzari dagokionez, bitan banatzen da; Itsas zabalerako aldea Arrigunaga da (goian zegoen baserriagatik edo) eta Portu Zaharreko aldea "**Areatxu**" deitzen da.

1639an Frantziako itsas armadak Espainiari eraso egin zionean, Arrigunaga hondartzaren goiko aldean,(skate gunean) defentsarako parapeto bat jarri zuten.

Ondoren egin zuten **Abasota** haitzaren gainean kanoien bateria famatua: "San Ignacio" bateria; beste bateria bat **Atxekolandetan** zegoen, kasu honetan "Nuestra Señora de Begoña" deitzen zen eta hortik dator tokiari gaur egun "Punta Begoña" deitzea. Gune militarrei santu eta ama birjinen izenak jartzearena Militarren ohitura zen.

Getxoko gotorlekurik inportanteena zen **Usategiko** hau, gero **Galeakoa** egin zuten eta Gero **Begoñako puntakoa Atxekolandetan**. Gotorleku honi, "Fuerte de San

Ignacio" deitu zioten eta euskaraz "**Gazteluzarra**", hortik dator Gazteluzarra kalea **Usategin**

Gazteluzarrari hemen "Castroviejo" esaten diote adinekoek. "**Castro**" gotorleku bezala ulertu behar da Getxo eta inguruetan; hor egon zelako Abraren defentsarako bateria txiki bat; eta euskaraz horri, "gaztelua" deitu izan zaio, ez du esan nahi defentsa handiak dituen eraikin bat egon zela baizik eta soldadu gutxi batzuk eta **San Nikolas** ermitan gordetzen ziren 3 kanoi...behin probatu omen zituzten kanoiak eta Portu Zaharreko etxeen leihoak apurtu omen zituzten.

Esan bezala Kanoiak eta "gaztelua" Usategi parkea den toki horretan zeuden. **Usategi**, aldatutako toponimoa da; izatez "**Uduategi**" da; jendeak hori zer zen ez zekienez, herri etimologiak **Usategi** sortu zuen eta hortik usoei erreferentzia egiten dionaren ustea.

Hemengo beste izen interesgarri bat, "**Banderas**" da. Banderekin bidaltzen zituen mezuak Bilbo gainean zegoen beste sistema batetara, garai hartan ez zegoen kablerik.

Abraren defentsarako toki estrategikoa da hau itsaso guztia ikusi ahal delako hemendik. Beranduago, kanoien gaitasuna hobetu zenean eraiki zuten **Galeakoa**

Gaur egun asko eta asko galduta dauden arren, itsasoko harriek ere izena zuten; adibidez, **Sansonarri** "peña de Sanson" euskarazko toponimoak. Zergatik jarri izena itsasoan dagoen harri bati? Ba momenturen batean erabilera kultural praktikoa izan zuelako arrantzarako.

Behan **Askanpe**. Alkatea batek Arrigunagako bidea egiteko asmoa izan zuen baina porrot egin zuen asmoak eta 1940an bete egin zen berriro. Karramarro, eskara, kabrak eta antzekoak hartzeko tokia zen auzokoentzat; nolabait, dietaren osagarri.

Gero, **Jenaratxu** aipatu behar da. Jenara, Karola tabernako jabearen amama izan zen eta inguru honetako ortuak kudeatzen zituen nahiz eta bereak ez izan.

Erriberamuna; erribera kostalde guztia da izatez; erribera gaineko eremuari deituko zaio erriberamuna.

Galea izenak amildegi, lurmuturra eta inguruan dagoen leku zelai handia izendatzen du. Gaur egun golf zelaia dagoen ingurua herri lurra izan zen getxoxtarrek abereak eramateko, beste herri lurrak bezala. XIX. mendean Udalak saldu behar izan zuen. Egun inguruan zer dagoen ikusita deigarria da 1881ean esaten zena: "*Está destinado a pasto comun gratuito y recreo de ganados. Produce yerba para ganado y para argoma para consumo de los vecinos convertida en abono.*"

Polita da **Abra** azaltzera. izen generiko batetik izen propio izatera pasatu zen, baserriekin gertatzen den bezala. **Abra** frantsesetik hartutakoa da eta "leku irekia" esan nahi du; ur gaziak eta gezak bat egiten duten tokia da, irekia, oso aberatsa arrantzarako eta merkataritzarako erabili izan da.

Bilboko **Abra**, Nerbioi ibaiko azken atalean dago. Azken mende honetan asko aldatu da. 70.ko hamarkadan, Europako lekuri kutsatuenetariko bat zen. Izan ere bai biodibertsitatea zein uraren egoera oso txarrak ziren. Materia organiko ugari zegoen uretan baita materia toxikoa ere.

Horretaz gain, ura oso arrea zegoen eta oxigeno maila baxuegia zen. Kutsaduraren eragina oso larria zen bio dibertsitatean, egia esan, edozein bizona mota ia desagertu zen ibaitik.

Hori dela eta, 1979an agintariak itsasadarra garbitzea erabaki zuten. Harrezkero egoera asko hobetu da. Gaur egun flora eta faunako aberastasuna egundokoa da. Biodibertsitatea gero eta handiagoa denez, autogarziketa prozesua gertatzen da eta arrain, ornogabe eta organismo franko etortzen dira janaria eta babesaren bila. Apika etorkizunean izurdeak, fokak edota beste itsas ugaztun batzuk ere ikusi ahal izango dira.

Galea aldean ere (Abrako kanpoaldean) nahiz eta itsas hondoa oso pobrea izan, gaur egun gero eta biodibertsitate handiagoa dauka.

Askorrik ere aldaketa nabarmena izan du. Oso degradatua zegoen, baina hobekuntza handia izan du eta espezie sentiberak ere badaude gaur egun.